

## 2022KO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO OPOSIZIOKO LEGEDIARI BURUZKO ZALANTZAK

Trantsizio aldi honetan LOMCEren eta LOMLOEren artean derrigorrezko bizikidetzaz gertatzen ari denez, dokumentu hau argitaratzen dugu, nahasgarriak izan daitezkeen gai batzuk argitze aldera.

Gomendio nagusia da, fase ezberdinak egitea deialdiaren legediak ezartzen duen araudia segituz, hura baitzen argitaratu zenean indarrean zegoena, nahiz eta hilabete hauetan etapetako curriculumaren dekretuak edo horien zehaztapen autonomikoak argitaratu.

Dealdiko ebazpenak azken asteetan izan dituen aldaketak eta zuzenketak aintzat hartu dira dokumentua egitean.

[324/2021 EBAZPENA, abenduaren 2koa, zeinaren bidez onesten dira maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura, eta maisu-maistren kidegoko karrerako langile funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.](#) (285. NAO, 2021eko abenduaren 21koa)

<b>EBAZPENAK ZEHAZTUTAKO LEGEDIA LEHEN HEZKUNTZAN</b>				
	<b>ARAU OROKORRA</b>	<b>ARAUDIAREN ARGITZEA</b>		
<b>GAIK ETA KASU PRAKTIKOAK (II eranskina)</b>	"Gaien zerrendan, LOGSEri buruzko aipamen guztiak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoari buruzkoak direla ulertzen da".	Deialdia argitaratu zen unean indarrean zegoen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa <a href="#">3/2020 LOEa da, LOMCEk aldatua, LOMLOEren proposamenekin</a> , testu hori 2020ko abenduaren 29an onartu baitzen, deialdia argitaratu baino ia urtebete lehenago.		
	<b>LOE (LOMLOE) EZARTZEKO EGUTEGIA</b>			
	<b>2021-2022 ikasturtea</b>	<b>2022-2023 ikasturtea</b>	<b>2023-2024 ikasturtea</b>	
	Hezkuntza-etapetako <b>ebaluazioan</b> sartutako aldaketak eta <b>mailaz pasatzeko baldintzak</b> .	Lehen Hezkuntzako <b>lehen, hirugarren eta bosgarren</b> mailetako curriculumak, antolaketa eta helburuak.	Lehen Hezkuntzako <b>bigarren, laugarren eta seigarren</b> mailetako curriculumak, antolaketa eta helburuak.  Ebaluazio <b>diagnostikoak</b> .	
<b>PROGRAMAZIOA ETA UNITATE DIDAKTIKOAK (IV eta V eranskinak)</b>	<b>ARAU OROKORRA</b>	<b>ARAUDIAREN ARGITZEA</b>		
	<a href="#">60/2014 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako</a>	LOMCEren curriculum elementuak zehazten ditu Nafarroarako, eta, beraz, programazioan eta unitateetan erabili behar ditugun helburuak, oinarritzko gaitasunak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta		

	<a href="#">curriculumazartzen duena.</a>	<p>ebaluagarriak diren ikaskuntza estandarrak bertan agertzen direnak izanen dira.</p> <p>Hau horrela da ebazpena atera zen unean Nafarroarako LOMLOEren curriculumaren zehaztapenak argitaratu gabe zeudelako.</p>
	<a href="#">984/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta promozioa arautzen dituena.</a>	<p>Berritasun nagusia 3. artikuluan dago: "Ebaluazioa egiteko, erreferentziatzat hartuko dira Lehen Hezkuntzako oinarritzko curriculumazartzen duen otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretuan jasotzen diren curriculumeko elementuak" (ebaluazio-irizpideak eta ikaskuntza-estandar ebaluagarriak). "Nolanahi ere, kontuan hartuko da errege dekretuko eranskinetan ageri diren ikaskuntza-estandar ebaluagarriak orientagarriak baino ez direla".</p> <p>Hori horrela da LOMLOEk ebaluazioaren, promozioaren eta titulazioaren arauketa aldatzen duelako, eta oinarritzen duelako batez ere helburuen lorpenean eta gaitasunen eskuratzean.</p>
	<a href="#">72/2014 FORU AGINDUA, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituena.</a>	<p>Ebaluazioaren ezaugarriak ezartzen ditu, hasierako ebaluazioa, ebaluazio jarraia eta amaierakoa, 3. eta 6. mailetakako banakako ebaluazioa, kalifikazioen eskala eta HPBrako laguntza eta errefortzuak.</p>
	<a href="#">93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa, Hezkuntza Kontseilariak emana, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari eman beharreko arreta arautzen duena.</a>	

<b>EBAZPENAK ZEHAZTUTAKO LEGEDIA HAUR HEZKUNTZAN</b>		
	<b>ARAU OROKORRA</b>	<b>ARAUDIAREN ARGITZEA</b>
<b>GAIK ETA KASU PRAKTIKOAK (II eranskina)</b>	Gaien zerrendan, LOGSEri buruzko aipamen guztiak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoari buruzkoak direla ulertzen da.	Deialdia argitaratu zen unean indarrean zegoen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa <a href="#">3/2020 LOEa da. LOMCEk aldatua. LOMLOEren proposamenekin.</a> testu hori 2020ko abenduaren 29an onartu baitzen, deialdia argitaratu baino ia urtebete lehenago.
<b>PROGRAMAZIOA ETA UNITATE DIDAKTIKOAK (IV eta V eranskinak)</b>	<a href="#">23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.</a>	2/2006 LOEren Nafarroako curriculumeko elementuak zehazten ditu, eta, beraz, foru dekretu honen curriculumeko elementuak izango dira programazioan eta unitateetan erabili behar ditugunak. Ez da beharrezkoa gaitasunen garapenari erreferentzia egitea (V. eranskinaren zuzenketa, 62/2022 ebazpena, martxoaren 23koa)
	<a href="#">47/2009 Foru Agindua, apirilaren 2koa. Hezkuntza Kontseilariak emana. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen ebaluazioa arautzen duena.</a>	
	<a href="#">93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa. Hezkuntza Kontseilariak emana. Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari eman beharreko arreta arautzen duena.</a>	